

TOKI ADMINISTRAZIOA

3

ADMINISTRACIÓN LOCAL

ARRASATEKO UDALA

Hirigintza

Iragarkia

Udaleko Osoko Bilkuran, 2025eko uztailaren 15ean, beste erabaki batzuen artean honako hau hartu du:

1. Onartzea, Arrasateko Hiri Antolamenduko Plan Orokorra-ren lehenengo aldaketa puntuala izapidetzen hasia.

2. Onartzea, herritarrek parte hartzeko plana eta programa.

3. Agiria osorik Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN eta web gunean argitaratzea, bi hilabeteko epean egon beharko da. Bestalde, jendaurrean jarriko da lurralde historikoko aldizkarian eta lurraldean hedapen handiena duen egunkarian edo egunkarietan.

4. Ekainaren 30eko lurzoruari eta hirigintzari buruzko 2/2006 Legearen 90. artikuluko lehenengo lerrokan aurreikusitako informazioa eta txostenak eskatzea:

a. Eusko Jaurlaritzan eta Gipuzkoako Foru Aldundian babes zibilaren, ingurumenaren, kultura ondarearen eta naturguneen alorreko eskumenak dituzten organoei, arriskuen berri izateko eta ingurumena, kultura ondarearen babesa eta naturguneak baldintzatzen dituzten faktoreak zeintzuk diren eta antolamenduak zeintzuk errespetatu behar dituen jakiteko.

Jarraian Parte hartze Plana eta Programa argitaratzen dira hurrengo eranskinean.

Arrasate, 2025eko uztailaren 22a.—Maidor Morras Azpiazu, alkatea. (5512)

PARTE HARTZE PROGRAMA

Sarrera.

2/2006 Legeak 8. artikuluan ezartzen du herritarren parte hartzearen printzipioa, eta 108. artikuluan erregulatzen du herritarrek parte hartzeko programen nolatasuna. Bestalde, 46/2020 Dekretuak 3 artikuluan zehazten du plan orokorra aldatzen hasteko hasierako erabakiarekin edo ebatzenarekin batera, parte hartzeko programa bat onartu behar dela, zeinek behar adina helburu, estrategia eta mekanismo ezarriko dituen herritarrek eta elkarteek parte hartzeko eskubidea izan dezaten.

Hortaz, plan orokorraren aldaketa puntuala egiteko, herritarrek parte hartzeko programa bat zehaztu behar da.

Parte hartze programak 46/2020 Dekretuko 3.2 artikuluan eskatzen den edukia izan behar du, gutxienez. Eta gainera, jaso beharko du genero ikuspegia honako araudia betetzeko: 46/2020 Dekretuaren 2.d. artikulua; Euskadiko Toki Erakunde berrizko 2/2016 Legea; eta emakumeen eta gizonen berdintasun eragingarriko 3/2007 Legea, zeinak 31.3 artikuluan jasotzen duen administrazio publikoek kontuan hartuko dutela genero ikuspegia, hiri diseinatzean, hiri politiketan, hirigintza plangintza definitu eta exekutatzean horretarako erabiliz, bereziki, mekanismo eta tresna batzuk sustatu eta bultzatuko dituztenak herritarren parte hartzea eta gardentasuna.

AYUNTAMIENTO DE MONDRAGÓN

Urbanismo

Anuncio

El Pleno del Ayuntamiento, en la sesión celebrada el 15 de julio de 2025, entre otros, adoptó el siguiente acuerdo:

1. Aprobar el inicio de la tramitación de la primera modificación puntual del Plan General de Ordenación Urbana de Arrasate.

2. Aprobar el plan y programa de participación ciudadana.

3. Publicar el texto íntegro del documento en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa y en la página web durante el plazo de dos meses. Por otra parte, se hará público en el boletín del territorio histórico y en el periódico o periódicos de mayor difusión en el territorio.

4. Solicitar la información e informes previstos en el párrafo primero del artículo 90 de la Ley 2/2006, de 30 de junio, de Suelo y Urbanismo:

a. A los órganos del Gobierno Vasco y de la Diputación Foral de Gipuzkoa competentes en materia de protección civil, medio ambiente, patrimonio cultural y espacios naturales, para conocer los riesgos y los factores que condicionan el medio ambiente, la protección del patrimonio cultural y los espacios naturales, así como los que debe respetar la ordenación.

En el anexo siguiente se publica el Plan y el Programa de la participación ciudadana.

Mondragón, a 22 de julio de 2025.—La alcaldesa, Maidor Morras Azpiazu. (5512)

PROGRAMA DE PARTICIPACIÓN

Inicio.

La Ley 2/2006 establece en su artículo 8 el principio de participación ciudadana y en su artículo 108 regula la naturaleza de los programas de participación ciudadana. Por otro lado, el Decreto 46/2020 establece en su artículo 3 que el acuerdo inicial para la modificación del Plan General deberá ir acompañada de la aprobación de un programa de participación ciudadana, donde indicará los objetivos y establezca una estrategia y un mecanismo para que la ciudadanía y las asociaciones tengan derecho a participar.

Por lo tanto, para poder llevar a cabo la modificación puntual del Plan General, habrá que especificar un programa de participación ciudadana.

El programa de participación deberá tener, al menos, el contenido exigido en el artículo 3.2 del Decreto 46/2020. Además, deberá incluir la perspectiva de género para el cumplimiento de la siguiente normativa: art. 2.d del Decreto 46/2020; la Ley 2/2016 de Instituciones Locales de Euskadi; y la Ley 3/2007 para la Igualdad de mujeres y hombres, el cual recoge en su art. 31.3 la integración de la perspectiva de género por parte de la Administración Pública en el diseño de la ciudad, en las políticas urbanas, en la definición y ejecución del planeamiento, utilizando para ello, sobre todo una serie de mecanismos e instrumentos que promuevan y potencien la participación ciudadana y la transparencia.

Helburua.

Programaren helburua nagusia, aldaketa prozesuan herritarren parte-hartzea sustatzea da, hirigintza kultura sustatuz eta adostasunak lortuz. Hiri Antolamenduko Plan Orokorren edozein esparruren idazketan eta onarpenean parte-hartze aktiboa izatea funtsezkoa da planak herriaren eta, era berean, herritarren beharrak eta nahiak islatuko dituela bermatzeko, bai eta prozesuaren gardentasuna eta zilegitasuna sustatzeko ere.

Horretarako, estrategia bat jarraituko da, beharrezko mekanismo eta tresnak inplementatuz, ahalik eta herritar gehienek parte hartu dezaten.

Gida.

Kontuan izanik 2/2006 Legearen 87. artikulua zehazten duena, alegia, plan orokorraren aldaketa puntuala egin nahi den kasuetan aurrerakina egitea aukerakoa dela, eta kontuan izanik alde aurreko azterlana, kontsulta eta diagnostikoa mugikortasun planean eta herri-galdeketa eginda daudela dagoeneko, ez dago aurrerakinik egin beharrik.

Hori horrela 7 fasetan banatzen da proposaturiko partehartze prozesua:

* 0. fasea.

Udalak, 2024an landutako Mugikortasun Planaren baitan, autobus geltoki berriaren kokapena aukeratzeko herri-galdeketa prozesua martxan jarri zuen, Udal Gobernuak herritarren erabakia errespetatzeko konpromisua hartuz. Bozketaren erabakia loteslea izateko, gutxieneko bi baldintza zehaztu ziren, gutxieneko parte hartze portzentajea % 30ekoa izatea eta bi aukeren arteko gutxieneko aldea % 10ekoa izatea.

Bozketarako bi kokapenentarako aukerak aurkeztu ziren: bata Laubiden eta bestea Zalduspen. Bi aukerentzat alde positibo eta negatiboak aztertu eta argitaratu ziren herritarren informazioa eta aukeraketa ahalik eta arrazoituena eta aberatsena izateko.

Bozketa, Arrasaten erroladatutako 16 urtetik gorako herritar guztientzat zabalik egon zen 2024ko azaroaren 11tik 16ra bitartean, BAZen. Ondoren, 2024ko azaroaren 18an, botoak zenbartzeko hirigintza batzorde berezi batera deitu zen Pleno aretoan.

Guztira 4.268 arrasatearrek parte hartu zuten geltokiaren kokapena aukeratzeko galdetegian, hautesle errolaren % 21,86ak hain zuzen, gutxienekoa % 30a izanik. Emaita ondorengoa izan zen:

- Zalduspe: 3.159 boto (bozen % 74,2).
- Laubide: 1.102 boto (bozen % 25,8).
- Zuriak: 2 boto.
- Baliogabeak: 5 boto.

Galdeketa emaitza kontuan hartzeko gutxieneko baldintzetako bat bete zen, baina bestea ordea ez. Hala ere, emaitza politikoki loteslea izan ez bazen ere, herritarren parte hartzea kontuan izatea erabaki zen behin betiko kokalekua aukeratzeko orduan, eta horrela jaso zen 2025an onartutako mugikortasun planean.

* 1. fasea. Aldez aurreko kontsulta: informazioa eta diagnostikoa.

Kontsulta publiko bat egingo da, herritarren eta entitateen proposamenak eta iritzia biltzeko, Arrasateko Zalduspeko behin betiko autobus geltokiaren eta inguru hurbilaren urbanizazioari buruzko iradokizunak planaren berrikustean kontuan hartu ahal izateko.

Iradokizunak inkesta edo galdetegi mekanismoen bidez jasoko dira, eta edukia hiru azterketa multzo nagusitan banatuko da herritarrentzako ulergarria izango den formatuan, eta partehartze erraza eta jendetsua bermatzeko:

- Autobus geltokia.
- Autobus geltokiaren ingurua.
- Autobus geltokira bidea.

Objetivo.

El objetivo principal del programa es fomentar la participación ciudadana en el proceso de cambio, promoviendo la cultura urbanística y logrando consensos. En cualquier ámbito del Plan General de Ordenación Urbana, la participación activa en la redacción y aprobación del plan es fundamental para la queden reflejadas las necesidades y deseos de la ciudadanía, así como promover la transparencia y la legitimidad.

Para ello, se seguirá una estrategia, implementando los mecanismos e instrumentos necesarios para conseguir la mayor participación ciudadana posible.

Guía.

Teniendo en cuenta lo que determina el artículo 87 de la Ley 2/2006, es decir, que en los casos que se quiera hacer una modificación puntual del plan general, será potestativo el realizar un avance, y teniendo en cuenta que previamente ya se han realizado el estudio, consulta y diagnóstico dentro del Plan de Movilidad, en este caso no es necesario la realización del avance.

Por lo tanto, el proceso de participación se dividirá en 7 fases:

* Fase 0.

El Gobierno municipal puso en marcha el proceso de consulta popular para poder elegir la ubicación de la nueva estación de autobuses, dentro del marco del Plan de Movilidad del 2024, con el compromiso de respetar la decisión ciudadana. Para que la decisión de la votación fuese vinculante, se definirán dos condiciones mínimas: que la participación mínima fuese del 30 % y la diferencia mínima entre ambas opciones fuese del 10 %.

Para la votación se presentaron las opciones para las dos ubicaciones: una en Laubide y otra en Zalduspe. Se analizaron y publicaron los aspectos positivos y negativos de las dos opciones, para que la decisión de los ciudadanos fuese la más razonada y enriquecedora posible.

La votación estuvo abierta desde el 11 al 16 de noviembre del 2024 en el BAZ, a toda la población empadronada en Arrasate, mayor de 16 años. Posteriormente, el 18 de noviembre de 2024, se convocó a una comisión especial de urbanismo en el salón de plenos, para proceder al escrutinio.

Un total de 4.268 arrasatearres participaron en el cuestionario para elegir la ubicación de la estación, el 21,86 % del censo electoral, no llegando al mínimo del 30 %. El resultado fue el siguiente:

- Zalduspe: 3.159 votos (74,2 %).
- Laubide: 1.102 votos (25,8 %).
- En blanco: 2 votos.
- Nulos: 5 votos.

Se cumplió uno de los requisitos mínimos para tener en cuenta el resultado del sondeo, pero no el otro. Sin embargo, aunque el resultado no fue políticamente vinculante, se decidió tener en cuenta la participación ciudadana en la elección de la ubicación definitiva, y así quedó recogido en el Plan de movilidad aprobado en 2025.

* Fase 1. Consulta previa: información y diagnóstico.

Se realizará una consulta pública para recoger las propuestas y opiniones de los ciudadanos y entidades sobre la urbanización de la estación definitiva de autobuses de Zalduspe y su entorno, para poder tener en cuenta las sugerencias en la revisión del plan.

Las sugerencias se recogerán a través de mecanismos de encuesta o cuestionario divididos en tres bloques principales, en un formato que resulte comprensible para la ciudadanía, para poder garantizar la máxima participación:

- La estación de autobuses.
- El entorno de la estación de autobuses.
- El camino a la estación de autobuses.

Udaleko webgunean Zalduspeko prozesuari dagokion espazioa zabalduko da, eta bertan, parte-hartze prozesuari buruzko dokumentazio guztia eskuragarri jarriko da. Edonola ere, arrakala digitala saihesteko baliabideak herritarren eskura jarriko dira.

Parte hartzea aurrera doan heinean, udal taldeak emaitzak aztertuko ditu eta ondorioak aterako ditu diagnostikoa prestatzen joateko, eta somatzen diren beharren arabera, parte hartzea moldatu ahal izango da.

Lehenengo fasea parte hartzearen emaitzekin ateratako diagnostikoa eginda bukatuko da eta udalaren webgunean eta hedabideetan zabalduko da.

* 2. fasea. Dokumentazioa prestatzea.

Aldez aurreko partaidetzaren emaitzen diagnostikoa egin ondoren, aldaketa puntualaren dokumentazio teknikoak prestatuko du talde idazleak, eta udal plangintzako aholku batzordeak aztertuko du, txosten bat egitearekin batera. Helburua da kontseiluak aholkularitza eta deliberazio lana egitea, gizarte kontzertazioa funtzioak betetzen direla bermatzeko eta, aldi berean, hirigintza planaren aldaketa puntuala idazteko jarraituko diren irizpide eta helburuetarako ekarpenak egitea.

* 3. fasea. Ingurumen ebaluazioa.

Udalak ingurumen organora honako dokumentazioa bidaliko du: ingurumen ebaluazioari hasiera emateko eskabidea, ingurumen dokumentu estrategikoa eta plan orokorraren aldaketa puntuala jasotzen duen dokumentua.

Ingurumen organoak eraginpeko administrazio publikoen eta pertsona interesdunen kontsulten mende jarriko du espedienteak, iritzia eman dezaten hilaetako epean, eskaera egiten denetik hasita, ingurumen ebaluazioari buruzko oinarriko araudi sektorialean aurreikusitako baldintzetan. Ondoren, Ingurumen organoak ingurumen txosten estrategikoa egingo du, bi hilaetako epean, espediente osoa jasotzen duenetik hasita, eta, kontsulten emaitza kontuan hartuta, erabakiko du planaren aldaketak ingurumenean ondorio nabarmenak dituen edo ez.

Aldaketaren dokumentuak ondorio nabarmenik balu, txostenak xedatuko du aldaketa ingurumen ebaluazio estrategikoa arruntaren mende jarri behar dela. Ingurumen organoak ingurumen azterketa estrategikoaren irismen dokumentua egingo du eta udalari jakinaraziko dio.

Ondorio nabarmenik ez badu, ordea, ingurumen organoak txostena onetsi eta Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratuko da 4. fasera pasatzeaz batera.

* 4. fasea. Hasierako onespina.

Planaren hasierako onepenerari dagokion jendaurreko erakustaldiaren tramitea martxan jarriko da, araudiak hala eskatuta. Tramite horren berri, webgunean, Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN eta hedabideetan emango da. Jendaurreko epea berrogeita bost egunekoa izango da.

Era berean, prozeduran edozein modalitatetan parte hartu duten erakunde edo eragileei jakinaraziko zaie hasierako onepenerako erabakia. Eta, bestalde, sektoreko eskumenak dituzten administrazio publikoei onepeneraren berri emango zaie beharrezko txostenak egin ditzaten.

Hasierako onepenerako dokumentuak exekuzio-laburpen bat jasoko du. Dokumentazio dena udal webgunean eskuragarri jarriko da.

Bestalde, informazio bilera bat ere antolatuko da interesdun guztientzat planaren hasierako onepenera agiriaren berri emateko. Bileran beharrezkoak izan daitezkeen tresnak eta mekanismoak martxan jarriko dira edukia azaltzeko eta jendearen alegazioak jasotzeko. Ekimenaren berri udaleko webgunearen eta hedabideen bidez emango da. Bileran, haurren zein adinekoen zaintzaileak ere ongi etorriak izango dira. Berezikari erreparatuko zaie emakumeen iritziei.

En la web municipal se ampliará el espacio correspondiente al proceso de Zalduspe, donde se pondrá a disposición de la ciudadanía toda la documentación relativa al proceso participativo. En cualquier caso, se utilizan otros recursos para poder evitar la brecha digital.

A medida que avanza la participación, el grupo municipal analizará los resultados y sacará conclusiones para ir elaborando el diagnóstico, y en función de las necesidades que se detecten, se podrá modificar el método de la participación.

La primera fase finalizará con el diagnóstico obtenido con los resultados de la participación y se difundirá en la web municipal y en los medios de comunicación.

* Fase 2. Elaboración de documentación.

Una vez realizado el diagnóstico de los resultados de la participación previa, el equipo redactor elaborará la documentación técnica y el Consejo Asesor de Planeamiento la elaboración de un informe. El objetivo es que el consejo realice una labor de asesoramiento y deliberación para garantizar el cumplimiento de las funciones de concertación social y, al mismo tiempo, la modificación de realizar aportaciones a los criterios y objetivos que se seguirán para la redacción puntual.

* Fase 3. Evaluación ambiental.

El Ayuntamiento remitirá al órgano ambiental la siguiente documentación: Inicio de la evaluación ambiental, el documento ambiental estratégico y la modificación puntual del plan general documento que contiene.

El órgano ambiental de las consultas de las administraciones públicas afectadas y de las personas interesadas someterá el expediente para que se pronuncien en el plazo de un mes desde la solicitud, en los términos previstos en la normativa sectorial básica de evaluación ambiental. A continuación, el órgano ambiental emitirá en el plazo de dos meses el informe ambiental estratégico correspondiente a la totalidad del expediente a partir de su recepción y teniendo en cuenta el resultado de las consultas, decidirá la modificación del plan, si tiene o no efectos significativos sobre el medio ambiente.

En el caso de que el documento de modificación tuviera efectos significativos, el informe determinará que la modificación deberá ser sometida a la evaluación estratégica ordinaria. El órgano mediambiental elaborará el informe del análisis estratégico mediambiental y lo comunicará al Ayuntamiento.

En caso de no tener efectos significativos, el órgano ambiental aprobará el informe y se publicará en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa, con el paso a la cuarta fase.

* Fase 4. Aprobación inicial.

Se pondrá en marcha el trámite de información pública correspondiente a la aprobación inicial del Plan por exigencia normativa. Este trámite está disponible en la página web, en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa y en el se emitirá en los medios de comunicación. El plazo de exposición pública será de cuarenta y cinco días.

Asimismo, a las entidades o agentes que hayan participado en el procedimiento en cualquiera de sus modalidades se les notificará el acuerdo de aprobación inicial. Y, por otro lado, las se dará traslado de la aprobación a las Administraciones Públicas para que emitan los informes pertinentes.

El documento de aprobación inicial incluirá un resumen de la ejecución. Toda la documentación se pondrá a disposición en la web.

Por otro lado, se organizará una reunión informativa para todos los interesados al inicio del plan para comunicar el documento de aprobación. En dicha reunión se pondrán en marcha todas las herramientas necesarias para poder exponer todo el contenido y recoger las alegaciones del público. La información sobre la iniciativa se publicará en la web municipal y a través de los medios de comunicación. En la reunión también serán bienvenidos los cuidadores tanto de niños como de mayores. Se prestará especial atención a las opiniones de las mujeres.

* 5. fasea. Behin-behineko onespena.

Planaren aldaketa puntualaren behin-behineko onespena argitaratuko da, eta erabakiaren edukia eta onartutako planaren edukia udalaren webgunean, Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN eta hedabideetan argitaratuko dira. Edonola ere, erantzun arrazoitua emango zaie hasierako onespeneko jendaurreko tramitean egingako alegazio guztiei.

Behin-behineko planak aurrera egiteko, EAEko Lurralde Antolamendurako Batzordeak txostena egingo du, 3 hilabeteko epean, eta era berean, Ingurumen organoak, ingurumen adierazpen estrategikoa prestatuko du 2 hilabeteko epean.

Txostenaren eta ingurumen adierazpen estrategikoaren emaitzekin, udalak, hala badagokio, behar diren aldaketak egin eta planaren aldaketa puntuala behin betiko onesteko erabakia hartuko du.

* 6. fasea. Behin betiko onespena.

Planaren aldaketa puntuala behin betiko onartu eta argitaratuko da, udal webgunean, Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN eta hedabideetan. Gainera, behin betiko onartzeko dokumentuak exekuzio-laburpen bat jasoko du.

Halaber, informazio bilera bat antolatuko da interesdun guztientzat planaren aldaketa puntualaren behin betiko onespenean agiriaren berri emateko. Bileran, beharrezkoak izan daitezkeen tresnak eta mekanismoak martxan jarriko dira edukia azaltzeko. Ekimenaren berri udaleko webgunearen eta hedabideen bidez emango da.

* Fase 5. Aprobación provisional.

Se publicará la aprobación provisional de la modificación puntual del plan, y el contenido del acuerdo y el contenido del plan aprobado serán publicados en la web municipal, en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa y en los medios de comunicación. En todo caso, se dará respuesta motivada a todas las alegaciones y solicitudes de información realizadas dentro del trámite de la aprobación inicial.

Informe de la Comisión de Ordenación del Territorio del País Vasco para el avance del plan provisional. Para que el plan aprobado inicialmente siga su curso, la Comisión de Ordenación del Territorio de la CAV, emitirá un informe en el plazo de 3 meses, y al mismo tiempo, el Órgano ambiental elaborará, en el plazo de 2 meses, la declaración ambiental estratégica.

Con los resultados del informe y de la declaración ambiental estratégica, el ayuntamiento, en su caso, adoptará el acuerdo de aprobar definitivamente la modificación puntual del plan.

* Fase 6. Aprobación definitiva.

La modificación puntual del Plan será aprobada y publicada definitivamente en la página web municipal, en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa y en los medios de comunicación. Además, el documento de aprobación definitiva incluirá un resumen ejecutivo.

Asimismo, se organizará una reunión informativa para todos los interesados sobre la modificación puntual del documento de aprobación definitiva. En la reunión, se dispondrá de todos los mecanismos e instrumentos para explicar el contenido. La información de la iniciativa se publicará tanto en la web municipal, como a través de los medios de comunicación.